

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO HIGIENE- ETA HIDRATAZIO-ZAINKETA ESTETIKOETARAKO BALIABIDEEN AZTERKETA ETA AUKERAKETA.	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0087		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Aurpegiko eta gorputzeko higieena eta hidratazioa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aurpegiko eta gorputzeko higieene- eta hidratazio-teknikak.	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0355_2: AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO HIGIENE- ETA HIDRATAZIO-TEKNIKA ESTETIKOAK APLIKATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bezeroa egingo zaion tratamendurako egokiak diren segurtasun-kondizioetan jartzea.

EI1.1 Bezeroa teknika estetikoak egiteko forma zehatzean kokatzeko behar diren kabina, ohatila edo besaulkia, mihiseria eta bestelako materialak prestatzea.

EI1.2 Modelo batekin egiten kasu praktiko batean: Egingo den teknika estetikorako egokia den jarreran jartzea.

EI1.3 Egingo den teknikara egokitutako neurriekin babestea modeloa:

- Lepo/garondo, giltzurrun/gerri inguruak eta zokogune popliteoa burkoekin, toallekin edo bestelako material espezifikoein babestea. Ilea.
- Kotoia jartzea begietan edo zona sentikorretan, lurruna aplikatu behar bada.

A2: Bezeroaren larruazal-mota eta larruazalaren egoera eta haren eskaerak aztertzea, aurpegiko eta gorputzeko higieene- eta hidratazio-teknika estetiko egokienak aukeratzeko.

EI2.1 Saillatzeko eta diagnostikoa egiteko aukera ematen duten larruazalaren ezaugarriak aztertzea.

EI2.2 Larruazala aztertzeo eta analizatzeko ekipoak, metodoak eta teknikak aplikatzea: irudia handitzea, jariaकिन neurtzea, larruazaleko fototipoa eta beste batzuk.

EI2.3 Aurpegiko eta gorputzeko higieene- eta hidratazio-teknikak aukeratzean eta gauzatzean eragina duten alterazio estetiko nagusiak aipatzea.

EI2.4 Higieene- eta hidratazio-tratamendu estetikoak egitea komeni den larruazaleko agerpenak identifikatzea.

EI2.5 Bezerori galderak egitea, intolerantzia-erreakzioak eragin ditzaketen produktu kosmetikoei eta aurpegiko eta gorputzeko higieene- eta hidratazio-ohiturei buruzko informazioa lortzeko.

EI2.6 Bezeroa beste profesional batzuegana bideratzea komeni den alterazioak edo egoerak identifikatzea.

EI2.7 Larruazala aztertzeo fitxa teknikoan zer datu jaso behar diren deskribatzea, eta egindako aurpegiko eta gorputzeko higieene- eta hidratazio-zainketak kontrolatzea eta ebaluatzea.

EI2.8 Elkarrizketa txiki bat egitea bezeroari diagnostikoa egiteko, eta lortutako datuekin bezeroaren fitxa betetzea.

EI2.9 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean: - Larruazal-mota azaltzea.

- Higieene- eta hidratazio-teknikei eragiten dieten berezitasunak dituzten zonak bereiztea.
- Higieene-teknika eta baliabide tekniko zehatzak larruazalaren ezaugarrien eta egoeraren arabera aukeratzea.
- Teknika horiek zer maiztasunekin aplikatu behar diren zehazteko jarraibideak jartzea.

A3: Aurpegiko eta gorputzeko higieene- eta hidratazio-teknikak aplikatzeko faseetan zer baliabide teknikoak eta produktu erabiliko diren identifikatzea.

EI3.1 Aukeratutako higieene-teknika —azalekoa edo sakonekoa eta hidratazio-teknika arrazoitzea, baita jarraitu beharreko prozesuen segida ere.

EI3.2 Larruazala azaletik eta sakon garbitzeko kosmetiko egokiak identifikatzea, haien ezaugarri teknikoak kontuan hartuta.

EI3.3 Kosmetiko bakoitza hura egokia den larruazal-motarekin erlazionatzea.

EI3.4 Kosmetiko hidratatzaileak bezeroaren larruazalaren egoeraren arabera aukeratzea.

EI3.5 Fase bakoitzean zer aparatu behar diren zehaztea, eta haiek behar bezala erabiltzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko jarraibideak adieraztea.

EI3.6 Aparatuak, produktuak eta materialak behar bezala erabiltzeko eta kontserbatzeko jarraibideak adieraztea.

Edukiak

1. Bezeroa segurtasun- eta higiene-kondizioetan prestatzea

- Ekipoa prestatzea: mihiseria eta beste.
- Bezeroa prestatzea eta kokatzea.
- Prozesu hauetan babesteko metodoak eta zonak:
 - aurpegiko eta gorputzeko higienea.
 - aurpegiko eta gorputzeko hidratazioa.
- Bezeroa babesteko erabiltzen diren materialak eta baliabideak.
- Arriskuen eta nahi ez diren erreakzioen prebentzioa.

2 Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan eragina duten larruazaleko eta haren eranskinetako alterazioen azterketa.

- Kontzeptua eta sailkapena:
 - Sortzetikoak, hereditarioak,
 - Exogenoak, endogenoak
 - Pigmentarioa, baskularra.
 - Keratinizazioarenak, izerdiarenak, lipidazioarenak.
- Larruazalaren analisia. Larruazal-moten sailkapena hauen arabera:
 - Emultsio epikutaneoak: normala, deshidratatua, koipetsua, mistoa, atipikoa, okluitua.
 - Testura eta lodiera.
 - Larruazaleko fototipoa.
 - Larruazalaren zahartze-zeinuak.
- Fitxa teknikoak: garrantzia eta erabilgarritasuna.
- Fitxa teknikoaren egitura: datu pertsonalak, teknikoak, oharrak eta beste.
- Beste profesional batzuei bideratzeko txostena.

3 Aurpegiko eta gorputzeko larruazal-motaren diagnostikoa egiteko ekipoak eta teknikak

- Diagnostiko estetikoak egiteko erabiltzen diren ekipoak. Lupak. Mikrokamera. Sebometroa. Hidratazio-mailaren neurgailua. Wood-en argia. pH-aren neurgailua.
- Erabilerak eta aplikatzeko teknikak.
- Larruazalaren analisi estetikorako metodoak: Behaketa. Haztapena. Presioa. Zimikoa.

4 Aurpegiko eta gorputzeko higiene eta hidrataziorako baliabide teknikoak, kosmetikoak eta aparatuak:

- Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-tratamenduetarako baliabideak eta ekipoak:
- Aukeratze-irizpideak baliabideen, aparatuen eta kosmetikoen arabera:
 - Larruazal-mota.
 - Larruazalaren egoera.
 - Aplikatzen den zona anatomikoa.
 - Tratamendu-mota.
- Teknikak hautatzeko irizpideak: Makillajea kentzea. Ateratzea. Inkrustazioak kentzea. Hidratazioa. Beste batzuk.
- Prestatzeko eta manipulatzeko jarraibideak.
- Higiene-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aurpegiko eta gorputzeko higiene eta hidratazioko ekipoei, erremintei eta materialei aplikatuta

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Baldintza hauetakoren bat bete behar da:
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Higijene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.